



G



E



M



S




idatzia k

konbiteak, zorion-agurrak, oharak...






A









Eskuartean dozun idatzi bilduma hau euskerea zabaltzen eta normalizetan laguntzeko prestau dogu zeure udalerriko euskera zerbitzuan. Izan be, geroago eta gehiago zarie euskerea normaltasunez erabilteko ahalegin berezia egiten zabilzenok.





Horregaitik, bada, aurrerapausu bat gehiago emon gura dogu udaleko euskera zerbitzutik eskaintzen dogun hizkuntza aholkularitza zerbitzuan, eta zuen beharrei erantzuteko idatzi sorta hau prestau dogu. Guztia ahalik eta modurik errazenean azaltzen ahalegindu gara, zuentzat eguneroko jardunean euskereari toki handiagoa egiteko tresna erabilgarria izan daiten.





Aurkibidea

Sarrerea	3	7 Bidaia agentziakazko gutunak	39 - 43
1 Gutunak osotzeko esapideak	5 - 8	A Billeteak, logela eta gidaririk bako alokairuko auto bat erreserbetako	40
A Hasierako agurrak	6	B Bidaia eta apartamentu erreserba ezeztatzea	41
B Amaierako agurrak	7	C Hoteletan zerbitzu txarra izateagaitik erreklametea	42
C Data edo eguna	8	D Bidaia behar ez dan moduan antolatzeagaitik erreklametea	43
2 Konbiteak	9 - 16	8 Erreklamazioak	45 - 49
A Erakusketea	10	A Aseguru etxeari erreklametea	46
B Ezkontzea	11 - 12	B Automobil tailerrari erreklametea	47
C Bataioa	13	C Bidaia behar ez dan moduan antolatzeagaitik erreklametea	48
D Meriendea	14	D Telefono konpainia bati erreklametea	49
E Lehen jaunartzea	15	9 Udalagazko hartu-emonetan herritarrek erabiltzen dituen idatziak	51 - 61
F Ume jaiobarria aurkeztea	16	A Erroldako datuak aldatzeko eskatzea	52
3 Zorion-agurrak	17 - 20	B Obra txikiak egiteko lizentzia eskatzea	53
A Urtebetetze edo urtemugetan egitekoak	18	C Dendea zabaltzeko lizentzia eskatzea	54
B Semea edo alabea jaioko dalako	19	D Ibilgailuen gaineko zerga zuzentzeko eskatzea	55
C Gabonetan zoriontzekoak	20	E Kultura etxeko aretoa erabilteko eskatzea	56
4 Doluminak emotea	21 - 28	F Oposizio baten kanpoan itxi edo baztertu izanaren kontrako erreklamazioa	57
A Doluminak emotekoak	22 - 23	G Jabetza publikoko ondasunei eragindako kalteak salatzea	58
B Eskerrak emotekoak	24	H Mahaia eta aulkiak bide publikoan ipinteko baimena eskatzea	59
C Oroigarriak	25 - 27	I Errotuluak, erakusleihoak eta toloak ipinteko lizentzia eskatzea	60
D Urteurrenekoak	28	J Hirigintza informazioa eskatzea	61
5 Eskolako idatziak	29 - 32		
A Umea eskolara joan ez izana azaltzea	30 - 31		
B Eskareira irakasleari	32		
6 Etxe portaleko auzokideen komunitateen idatziak	33 - 38		
A Oharrak	34 - 35		
B Portaleko auzokideen batzarrerako deia	36		
C Portaleko auzokideen batzarraren aktea	37 - 38		



1

GUTUNAK OSOTZEKO ESAPIDEAK



A Hasierako agurrak

B Amaierako agurrak

C Data edo eguna

A


Hasierako agurrak


<p>Idatzietan hasierako agurra idazteko era asko dagoz. Beti be, kontuan hartu behar da nori bialtzen jakon gutuna edo idatzia eta zelango tratamentua emon gura jakon. Hona hemen adibide batzuk:</p>			
<p>1 ▶</p> <p>Eredu formala/neutroa</p>		<p><i>Jauna:</i></p> <p><i>Andrea:</i></p> <p><i>Jauna/Andrea:</i></p> <p><i>Jaunak:</i></p> <p><i>Andreak:</i></p> <p><i>Agur t´erdi:</i></p> <p><i>Jaun hori:</i></p> <p><i>Andre hori:</i></p>	
<p>Hurragoko eredia</p> <p>2 ▼</p> <p><i>Laguna:</i></p> <p><i>Lagunak:</i></p> <p><i>Lagun hori:</i></p>			
		<p>Oharra: “Jauna” edo “Andrea” berbei “agurgarri” eta antzekoak gehitu izan jakez, baina ez da beharrezkoa, “Jauna” edo “Andrea” berbek badabe-eta kortesiazko kutsua. Beste alde batetik, gutunaren edo idatziaren hartzailea pertsona bakarra bada, eta ez badakigu gizonezkoa edo emakumezkoa dan, orduan “Jauna/Andrea” erabiliko dogu.</p>	

B

Amaierako agurrak



Hasierako agurraren kasuan aitatu dogun moduan, amaierako agurra idazteko be kontuan hartu behar da nori bialtzen jakon idatzia edo gutuna eta zelango tratamentua emon gura jakon. Hona hemen adibide batzuk:


<p>1 ▶</p> <p>Eredu formala</p>	<p><i>Adeitasunez, agur,</i></p> <p><i>Begirunez, agur,</i></p>
<p>Eredu neutroa</p> <p>2 ▼</p>	
<p><i>Horrenbestez, agur,</i></p> <p><i>Beste barik, agur,</i></p>	
<p>3 ▼</p>	<p>Hurragoko eredua</p>
	<p><i>Agur bero bat,</i></p> <p><i>Hurrengora arte,</i></p> <p><i>Ondo ibili eta ikusi arte</i></p>



C

Data edo eguna

Gehien erabilten diran ereduak honeek dira:				
1				
▼		3		
<i>Ondarroan, 2002ko zemendiaren 7an</i>				
2		▼		
<i>Basauri, 2002-11-07</i>		<i>Gernika-Lumo, 2002ko zemendiaren 7a</i>		
				



2

KONBITEAK

- A** Erakusketea
- B** Ezkontzea
- C** Bataioa
- D** Meriendea
- E** Lehenengo jaunartzea
- F** Ume jaiobarria aurkeztea

A

Erakusketea

1



Berangon garagarriaren 22tik abuztuaren 15era arte egingo dodan argazki erakusketearen inaugurazina etorri zaitezak konbidetan zaitut. Erakusketearen inaugurazinoa Kultura Etxeko aretoan izango da garagarriaren 22an, arratsaldeko 7retan.

Egun horretan gure artean izango zabalakotan, eskerrik asko,

Berangon, 2002ko garagarriaren 15ean

2


KONBITEAK

B

Ezkontzea

*Julen Madera Ortiz eta Luisa Etxebarria**Atsegin handiz konbidetan zaituegu gure ezkontzara. Arantzazuko Ama**Birjinearen basilikan ospatuko dogu, apirilaren 12an, iluntzeko 8retan.**Horren ostean, Zelaizabal jatetxean afalduko dogu.**Galdakaon, 2002ko garagarriaren 1ean*

1



2

*Lorenzo eta Martina**Atsegin handiz adierazoten deusuegu ezkondu egingo garala irailaren 12an,**arratsaldeko 6retan, La Asunción eleizan.**Gero, El Poblet jatetxean alkartuko gara, koktela eta afaria izango dogu eta.**Etorriko zarielakoan,**Tel. 944 728 162*

B**Ezkontzea****3**

*Gure gurasoakaz batera
Jose eta Karmen & Manuel eta M.Paz
David eta Sandra*

*Atsegin handiz konbidetan zaituegu gure ezkontzara; apirilaren 28an
izango da, eguerdiko ordubetetan, San Andresko baseleizan.*

Bazkaria: Errota jatetxean

Konfirmatzeko

David 946319045

Sandra 946317634

Usansoln, 2001ean

**4**


Pancho eta Carlota

Luzaroan itxaron eta gero, azkenean berandu baina seguru.

*Konbidauta zagoze gure ezkontzara; irailaren 28an izango da, zapatuan,
arratsaldeko 6retan, Elorrioko eleizan.*

Gero, hori ospatzeko, afaria eta dantza saioa, Durango hoteleko saloietan.

Bertan itxarongo deusuegu.

**C**

2

KONBITEAK



Bataioa

1



Julen Madera Ortizek eta Luisa Etxebarriak atsegin handiz konbidetan zaitue alaba Mirenen bataio eguneko festara. Datorren domekan, hilak 8, ospatuko dogu Basauriko parrokian, eguerdiko 12etan.


Basaurin, 2002ko garagarriaren lean



D**Meriendea****1***Nire laguntxoei:**Hilaren 15ean nire eguna izan zan eta hori ospatzeko txokolatadea egingo dogu datorren eguenean Alkartu soziedadean, arratsaldeko 6retan.**Etorren bazara, ondo-ondo pasauko dogu eta bolo-bolo egingo dogu.**Zure lagun Ainara,**Berrizen, 2002ko abenduaren 22an***Nire laguntxoari:**

Bihar nire eguna izango da eta gura dot zu nigaz egotea eta alkarregaz ondo pasetea. Etorri gure etxera arratsaldeko 5etan eta txokolatea jan eta danok batera olgauko dogu.

Bihar arte,**Ainhoa Lasa****Berangon, 2002ko abenduaren 23an****2**



2

KONBITEAK

E

Lehen jaunartzea

Jon Muniain Lopez umeak lehenengoz hartu dau Eukaristiaren Sakramentua, 2000ko urriaren 9an, Derioko San Isidro eleizan.

Derion, 2000ko urriaren 9an



1

2




Jone Muniain Lopez umeak bere lehen jaunartzea ospatu dau 2002ko maiatzaren 10ean, Leioako San Juan Bataiatzailea parrokian.


Leioan, 2002ko maiatzean

3

Miren Barrutia Bengoa

*Nire lehenengo jaunartzearen oroigarria
San Juan Bataiatzailea eleizea
2002-10-2*





Ume jaiobarria aurkeztea



1 ▶

Epa!
 2000ko abenduaren 23an jaiio nintzan
 Ainhoa dot izena
 Gurasoak Luis eta Aintzane dodaz
 Jaiotzean 3 kg eta 800 gr-ko pisua neukan
 Aita-ama pontekoak
 Amaia eta Asier dodaz

Beñat

2003ko urtarrilaren 4an jaioa
arratsaldeko 15:36an
3,800 kg-ko pisuagaz
Potxolo-potxoloa da
Amaia eta Koldo

◀ 2



3

ZORION-AGURRAK

- A** Urtebetetze edo urtemugetan egitekoak
- B** Semea edo alabea jaio dalako
- C** Gabonetan zoriontzekoak

A

Urtebetetze edo urtemugetan egitekoak

<p><i>Jaso eizu gure familiaren izenean zorion agurrik beroena. Urte askoan holantxe jarraitu daizula bihotz-bihotzez.</i></p>	1		2
	<p><i>Zorionak eta urte askotarako!</i></p> <p><i>Jarraitu jator eta danon lagun,</i></p> <p><i>orain arte lez. Agur eta mosuak.</i></p>		
			
	3		<p><i>Izan zaitetz zoriontsu zure urte-egunean eta urte askoan holantxe jarraitu, jator eta zintzo zure lagunakaz eta hain maite dozuzan zure etxeokakaz.</i></p>
<p><i>Bihar zure eguna dala jakin dot eta bihotz-bihotzez opa deusut egun zoragarria eta zure etxeokakaz ondo-ondo pasetea.</i></p>			4

B

Semea edo alabea jaio dalako



1


Miren eta Jonentzat:

*Hartu eizue gure zorionik beroena. Pozaren pozez
ibiliko zarie, bat-batean aita-amak izatea ez
da-eta egunero jazoten. Egoera hori berezi-berezia
da eta, aldi berean, ederra eta handia, bizitzan
sentidu leiteken gauzarik zoragarriena.*

*Laster izango gaituzue hor bisitan, zuen alabatxoa
ezagutzeko. Deituko deusuegu joan aurretik.*

Barriri be zorionak eta ondo izan,

Lezaman, 2002ko garagarrilaren 1ean





Gabonetan zoriontzeoak

<p><i>Gabon zoriontsuak eta urte barri on.</i></p> 	<p>1</p>		<p>2</p>
	<p>3</p>	<p><i>Zorionak eta urte barri ona izan daizuela.</i></p>	
	<p><i>Igaro Gabonak bakean eta pozik, eta urte barri on.</i></p>		
<p>4</p>	<p><i>Gabon egun honeek indarbarritu daiela gizon-emakumeen alkartasun sentimentua, eta urte barriak zoriona eta ondoizatea ekarri daizala gurera eta beste-enera, eta bardintasuna gizon eta emakume guztiontzat.</i></p>		<p>5</p>
<p><i>Gure zorionik zintzoena Gabon honeetan, eta urte barrian osasuna opa deusut.</i></p>			

4

DOLUMINAK EMOTEA

A Doluminak emotekoak



B Eskerrak emotekoak

C Oroigarriak

D Urteurrenekoak

A

Doluminak emotekoak

<p>1 ▶</p>	<p><i>Sekulako samina dogu zuen aita hil dala jakin eta gero. Zuen atsekabeagaz bat egiten dogu eta haren aldeko ospakizunetan parte hartuko dogu.</i></p>	
<p><i>Benetan atsekabeturik gagoz, zure emaztea hil dala jakin dogu eta. Badakizu estimadu geunkala. Bera galdu eta aitzen dogu zure samina eta atsekabea; geurea be handia da, laguna galdu dogu eta.</i></p> <p><i>Ez daukagu barbarik zu kontsoletako, baina jakizu gure adiskidetasuna dozula eta gure barru-barruan gogoratu-ko dogula.</i></p>	<p>◀ 2</p>	
		<p>3 ▼</p>
	<p><i>Atsekabetuta gagoz zuen ama hil dalako. Emakume ona zan. Zuen saminagaz bat egiten dogu. Bene-benetan doluminak. Besarkada handia.</i></p>	


4

DOLUMINAK
EMOTEA

A

Doluminak emotekoak

<p>4</p> 	<p>▶</p> <p><i>Atsekabe handiz jakin dogu gure lagun eta zuen ahiztea Inesa hil dala. Gatx egiten jaku gure sentimentuak adierazotea, danok maite genduan-eta, beti egoan prest danoi laguntzeko. Zenbat momentu gozo ha gogora ekartean! Gure bihotzean eroango dogu beti.</i></p> <p><i>Zuen atsekabeen eta ha gogoratzean lagundu gura deustuegu.</i></p> <p><i>Besarkada handia.</i></p>	
<p>5</p>	<p>▶</p> <p><i>Triste gagoz Jon hil dala jakin dogulako. Hartu eizu gure dolumina sentimenturik handienagaz eta eskatzen deusagu Jangoikoari haren alde egin daian eta bakea eta lasaitasuna emon deizuzan.</i></p>	<p>6</p>
	<p>▼</p> <p><i>Gure samina adierazo gura deustugu, semea galdu dozulako. Gogoan dogu ze ona eta jatorra zan. Zugaz bat egiten dogu eta gogoan izango dogu haren aldeko ospakizunetan.</i></p>	



B

Eskerrak emotekoak

1



BIXENTE GOIKOMENDIA

Jaso doguzan atsekabezko adierazpenak eta haren alde eskaini dozuezan otoitzak eskertzen deusueguz.

Larrabetzu, 1999ko zemendiaren 14a




BIXENTE GOIKOMENDIA

Senitartekoak (emaztea eta seme-alabak)

Eskerrak emotea.

Ondarroa, 2003ko apirilaren 5a

2








4

DOLUMINAK
EMOTEA



C

Oroigarriak

<p>1</p> 	<p><i>Miren Solobenta Altxorta</i></p> <p>1923 – 6 – 23 1999 – 5 – 30</p>	
	<p>Zure oroimenak indartzen gaitu.</p>	<p>2</p> <p>3</p>
<p><i>Miren Solobenta Altxorta</i></p> <p>Jaio jaku hilteko 1923 – 6 – 23 Hil jaku biziteko 1999 – 5 – 30</p>	<p>Izan zaranagaitik eta erakutsi deuskuzunagaitik ez zaitugu inoiz ahaztuko.</p>	<p>Ni hilgo naz baina maitasunak bizirik dirau.</p>
<p>Isiltasunean izan dira zure lana eta bizitza, beti izango zara gure gogoan eta bihotzean</p>	<p>4</p> <p>6</p>	 <p>5</p> <p>7</p>
<p>Zure eskuetan ixten dogu Jauna guk maite genduana.</p>		



Oroigarriak

		
8	<p><i>Hil zara baina biziko zara zu beti gure gogoan. Itxaropena dogu batzeko barriro zugaz zeruan.</i></p>	9
10	<p><i>Joan zinan gu hemen itxita baina, jakin eizu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.</i></p>	<p><i>Ez niri agurrik esan gero arte baino.</i></p>
11	<p><i>Ez agurrik, ez adiorik gero arte bakarrik.</i></p>	12
	<p><i>Maitasuna ez da inoiz amatetan. Eta inoiz amatetan ez dalako, gogoan zaitugu.</i></p>	13
<p><i>Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.</i></p>		14





C

Oroigarriak

	15	▶ Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.	
17	Betiko izango zaitugu gogoan.		▶
Alkartuko garan itxaropenean.	Alaitasunaren iturritik edan genduan alkarregaz oroimenean izango zara zu beti gugaz.	18	▶
19	Nahiz eta urrin joan mundu honetatik ez dozu alde egingo gure bihotzetatik.	Laster arte ezpanetan itxi gozuz penetan orain gure ametsetan bizirik zagoz benetan zeruko izarretan eta gure bihotzetan.	20
Betiko bakea eta zoriona heldu da zure barrenera.	21	▶ Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko gure bihotz barrenean eroango zaitugu betiko.	



Urteurrenekoak


		
		
		
<p>JUANA LARRAÑAGA</p> <p><i>Urteurren mezea 2002ko abenduaren 2an</i> <i>Eguerdiko 12:30ean</i> <i>Mungiako San Pedro Apostoluaren eleizan.</i></p> <p><i>Etorten zarienoi</i> <i>aldez aurretik, eskerrik asko.</i></p> 		

5

ESKOLAKO IDATZIAK

A Umea eskolara joan ez izana azaltzea

B Eskaerea irakasleari





A

Umea eskolara joan ez izana azaltzea

2003ko urtarrilaren 7an

Gaur goizean Mikelek dentistarenera joan behar dau. Eskolara 11etan joango naz bila. Arratsaldean joango da eskolara.

Ane Elejalde
(Mikelen ama)



A


Umea eskolara joan ez izana azaltzea

2

Gernika-Lumon, 2003ko urtarrilaren 12an

Aurreko aste osoan Ane ez da eskolara joan barizela euki dauelako. Medikuaren gomendioa izan zan ez joatea. Astean egindako eskolako lanak emotea eskertuko neuskizu, atzeratutakoa begiratzeko.

Xabier Aranzabal



B

Eskaerea irakasleari

1

Anderño Rosa:

Kirola egiteko erooten dauen boltsea galdu dau Iratik, zapatilak eta txandala be bai. Esan deust eskolan ostu deusiela, ez eban-eta eskolatik atera. Solfeoan begiratu dogu ea han ete egoan, baina ez dogu topau. Eskertuko neuskizu eskolan begiratuko bazendu eta ea baten batek ezer dakian galdetuko bazendu.

Mila esker

Elena Garai



6



ETXE PORTALEKO AUZOKIDEEN KOMUNIDADEEN IDATZIAK

A Oharrak

B Portaleko auzokideen batzarrerako deia

C Portaleko auzokideen batzarraren aktea

Oharrak

 <p>1</p>	<p>Ohar honen bidez adierazoten deusuet, datorren martitzenean, hilak 20, Naturgas enpresako teknikariak gure portalean egongo dirala, gas instalazinoa aztertzeko. Goizeko 10:00etan hasiko dira, lehenengo pisuan hasi eta goikora aile-gau arte.</p> <p style="text-align: right;">Basaurin, 2002ko urtarrilaren 9an</p>
<p>2</p> <p>Bihar, eguena, erropea batzeko kanpaina bat egingo dau Caritas-ek eta horretarako arratsaldeko 6retan pasauko dira portaletik. Portalean bertan, boltsan sartuta, itxi zeinkez erro-pa horreek.</p> <p style="text-align: right;">Galdakaon, 2002ko zezeilaren 28an</p>	 <p>Egun bi barru portaleko kristalak garbituko dabez Garbi-Garbi Garbiketak enpresakoek. Halanda ze, jakizu goizean egongo dirala portalean.</p> <p style="text-align: right;">Berangon, 2002ko garagarriaren 31n</p>
<p>Kalean obra batzuk egin behar dabezala-eta jakizu datorren astean, hilaren 8an, goizeko 10:00etatik 13:00ak arte ez dogula argirik izango gure etxeetan. Abisu hori emon deusku Iberdrolak.</p> <p style="text-align: right;">Loiun, 2002ko bagilaren 21ean</p>	<p>4</p> <p>3</p>

6

ETXE PORTALEKO
AUZOKIDEEN
KOMUNIDADEA

A

Oharrak

Auzokide hori:

Badakizu 10 urte beteko dirala laster etxea egin zanetik eta oraintxe erreklamau behar doguzala okerrak eta akatsak, apur-tu diranak eta ikusitako hutsak. Halanda ze, komenidu da egun hori baino lehenago eskaerak niri pasetea.

Bilbon, 2002ko apirilaren 10ean

Portaleko arduraduna


5



6

Orain erabilten gabilzan antena parabolikoak akats batzuk izan ditu, eta horreek konpondu eta gero aldaketa txiki batzuk izan doguz telebista kateetan. Aurrerantzean, ETB2 eta ETB1 33. eta 56. kanaletan ikusiko doguz.

Ondarroan, 2002ko irailaren 7an



7

Garbiketa egiten dauenak esan deuskunez, datorren hilean, zapatu eta martitzenetan garbituko ditu portaleko eskilarak.

Berangon, 2002ko martiaren 5ean

B**Portaleko auzokideen batzarrerako deia****1****BATZARRERAKO DEIA**

Idatzi honen bidez deitu egiten deusuet gure portaleko batzarrera etorri zaitezten.

Eguna: 2002/10/28

Ordua: 20:00

Lekua: portalea

Aztergaiak:

1. Aurreko batzarreko aktea onartzea.
2. Igogailu barria ipintea.
3. Aurreko urteko diru kontuen barri emotea.
4. Kuotak igotea.
5. Eskaerak eta itaunak.

Gaien garrantzia ikusita, guztiok egotea komenidu da.

Ondarroan, 2002ko garagarriaren 3an

Portaleko auzokideen batzarraren aktea

1

**BATZARRAREN AKTEA****Nork deitu:** idazkaria**Eguna:** 2002/10/28 (astelehena)**Ordua:** 20:30**Lekua:** ataria**ETORRI DIRANAK.**

Maribi Etxebeste.

Maite Arriola.

Juan Luis Cebrián.

Marian Gómez.

Luis M^a Ruiz de Egino.

Beñat Uribarren.

Aztergaiak:

1. Aurreko batzarreko aktea onartzea.
2. Igogailu barria ipintea.
3. Aurreko urteko diru kontuen barri emotea.
4. Kuotak igotea.
5. Eskaerak eta galderak.

Esan-eginak eta erabagiak.**1. Aktea onartzea.**

Portaleko arduradunak batzarra hasi dau, eta aurreko batzarraren aktea leidu dau.

Erabagia: batzordekideek aurreko batzarraren aktea onartu dabe aho batez.



Portaleko auzokideen batzarraren aktea

▶ 2. Igogailu barria ipintea.

Igogailu barria ipinteko hartutako aurrekontuen barri emon deutse portaleko arduradunak batzordekideei.

Erabagia: aurrekontu guztiak komentau eta eztabaidatu dira. *Jaso* enpresek aurkeztutakoa onartu da, prezio ona eskaintzeaz gainera, saldu ondorengo zerbitzu ona dauka eta.

3. Aurreko urteko diru kontuen barri emotea.

Joan dan urteko sarrera-urteeren barri emon dau portaleko arduradunak (ikusit eranskina). Sarrerak 10.000 €-koak izan ziran. Urteerak, barriz, 8.523 €-koak. Halanda ze, kontuan izanda igaz urte hasieran 3.250 € egozala portaleko auzokideen komunitatearen kartillan, orain 4.727 € dagoz.

4. Kuotak ordaintzea.

Igogailu barria ipinteko ordaindu beharreko kuotak eta epeak aurkeztu ditu portaleko arduradunak.

Erabagia: kuotak %30 igotea proposatu dau eta auzokide guztiek onartu egin dabe, bik izan ezik: 1A eta 1B pisukoek. Esan dabe ez dabela igogailurik behar eta horregaitik ez dabela pagauko. Hori dala-eta lehendakariak proposatu dau auzokide bi horreek orain arteko kuotea pagetan segidutea, baina igogailua erabilteko giltzea ipintea. Bi proposamenak onartu dira. Horren ondorioz, kuotak %30 igotea eta igogailuari giltzea ipintea erabagi dabe.

5. Eskaerak eta galderak.

Ez da egon ez eskaerarik ez itaunik.

Amaiera: batzarra amaituta agiri hau egin dot, zer eztabaidatu eta zer erabagi dogun jasoteko.

Larrabetzun, 2002ko urtarrilaren 28an

Maite Arriola portaleko arduraduna

7

BIDAIA AGENTZIAKAZKO GUTUNAK

- A** Billeteak, logela eta gidaririk bako alokairuko auto bat erreserbetako
- B** Bidaia eta apartamentu erreserbea ezeztatzea
- C** Hoteletan zerbitzu txarra izateagaitik erreklametea
- D** Bidaia behar dan moduan ez antolatzeagaitik erreklametea

A**Billeteak, logela eta gidaririk bako alokairuko auto bat erreserbetako**

1



Erandion, 2002ko bagilaren 10ean

Bidean Bidaiak

Trabudu, 4

48950 Erandio

Agur t' erdi:

Nire izenean hegazkin billete bi erreserbetako eskatzen deusuet, Bilbo-Dublin hegaldian, turismo klasean, datorren abuztuaren 7an. Biko logela bat behar dogu, bainudun gelea, hiriko erdialdean.

Gidaririk bako auto bat be alokatu gura dogu, inguruko lekuak-eta ezagutu eta hor zehar ibilteko. Eskertuko geunskizu hori lortu eta hara heltzen garan egunean bertan gure eskura izatea hotelean bertan.

Zuen barrien zain, adeitasunez agur.

Izp.: Jon Zuazartazar

PD: Hotela, ahal bada, izan daitela hiru edo lau izarrekoa.

7

BIDAIA
AGENTZIAKAZKO
GUTUNAK

B

Bidaia eta apartamentu erreserba ezeztatzea

Igorren, 2002ko maiatzaren 6an

Ibili Bidaiak

Elexalde, 4

48140 Igorre

Agur t'endi:

Mesedez eskatzen deusuegu ezeztatzeko irailaren 14tik 28ra Lanzarotera joateko eskatuta genduan hegaldi eta apartamentu erreserba.

Ezustean izan doguzan arrazoi batzuen ondorioz, ezinezkoa egiten jaku aurten Lanzarotera joatea egun batzuk pasetan.

Esaiguzue, mesedez, erreserba horreek ezeztatzeagaitik gasturik ordaindu behar ete dogun eta horreek ordaintzeko erea.

Begirunez, agur t'endi.

Izp.: Jone Madinabeitia




1





Hoteletan zerbitzu txarra izateagaitik erreklamatea

1



Galdakaon, 2002ko bagilaren 10ean

*Mundutik Bidaiak
Torrezabal kalea, 6
48960 Galdakao*

Agur t'ardi:

Penaz idazten deusuegu gutun hau, baina uste dogu bidaiaren antolaketaren gainean doguzan eritxiak esan egin behar doguzala.

Programea sekulakoa zan, baina porrot egin dabe hotelek, eskasak ez, txar-txarrak ziralako. Herri batzuetakoak baino ez ziran izan zuek esandako kategoriakoak, eta zer esanik be ez prezioa.

Itxaroten dogu gure kexea kontuan hartzea, eta pentsetan dogu ez dala bakarra izango.

Adeitasunez agurtzen zaituegu.

Izp.: Miren Axpe

D

Bidaia behar dan moduan ez antolatzeagaitik erreklametea

Gernika-Lumo, 2002ko bagilaren 10ean

*Bidean bidaiak
Barrenkale, 8
48300 Gernika-Lumo*

Sentiduten dogu kexa idatzi hau egin behar izatea, baina ez gagoz bape pozik zuen agentziaren bidez Bartzelonara egindako bidaiagaz.

Hotelak txarrak ziran eta programautako urteeren gainean esan behar dogu batzuk ez ziralda bape interesgarriak eta beste batzuk, barriz, oso txarto antolatuta egozala.

Ez dakigu beste kexarik jaso dozuen edo ez, baina jakin eizue bidaiari askori entzun geuntsala hemen aitatu dogun guztia.


Edozelan be, ez dogu kexarik zuen bidaia agentziaren gainean, momentu guztietan arreta berezia jaso dogu eta.





Adeitasunez agurtzen zaituegu.

Izp.: Mikel Arana



1





8

ERREKLAMAZINOAK

- A** Aseguru etxeari erreklametea
- B** Automobil tailerrari erreklametea
- C** Bidaia behar dan moduan ez antolatzeagaitik **erreklametea**
- D** Telefono konpainia bati erreklametea

A**Aseguru etxeari erreklametea****ERREKLAMAZINOGILEAREN DATUAK****Izen-abizenak:** Joxemari Aldanondo Galdos**Helbidea:** Aita Elorriaga kalea, 8-5. eskoia **Herria:** Mungia **PK:** 48100**Nortasun agiria:** 56.887.673X **Telefonoa:** 946743262**Noren ordezkari:**

1

ERREKLAMAZINOA JASO DAUENAREN DATUAK**Enpresaren izena:** Le Bon Vivant Aseguruak**Helbidea:** Trobika kalea, 3-7. ezkerria **Herria:** Mungia **PK:** 48100**IFZ/NA zk.:** 56.887.673L **Telefonoa:** 946153262**Jarduera:** Aseguru enpresea**ERREKLAMAZINOAREN ARRAZOIAK ETA HELBURUA**

Sukaldean urak urteten ebanez, aseguru etxera deitu neban. Iturgina berehalan etorri zan eta lurra altzau behar izan eban handik pasetan zan hodia konpontzeko. Hodia konponduta gelditu zan baina lurreko azulejoek emon deuste arazoa. Sukaldea erdi-erdian zulatu behar izan eben eta gero ipini deustezan azulejoak desbardinak dira. Itxura danez, ez dabez lehen egozanan modukoak topau eta horregaitik ipini dabez desbardinak.

Sukaldeak itxura txar-txarra dauka eta pentsetan dot lur guztia aldatu beharko leukiela, ez da-eta nire kontua azulejo bardinak topau ez izana.

Aseguru etxeak ez deust jaramonik egiten. Hodia bera eta hodiak sortutako kaltea konpondu dabela dinoe. Nik sukaldea egoan moduan ixtea baino ez dot eskatzen. Izan be, orain itxura txarra dauka. Lurra aldatzen ez badabe neuk aldatu beharko dot, baina horretarako zertarako ordaindu aseguruak?

ERREKLAMAZINOAREN EGUNA

2000ko urriaren 27an

GEHITZEN DITUDAN AGIRIAK (FAKTURAK, EGIAZTAGIRIAK,...)

Polizaren kopia

Polizaren ordainagiria



Izp.

B

Automobil tailerrari erreklametea

ERREKLAMAZINOGILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Miren Jone Barrutia Lopez de Okariz
Helbidea: Elexalde, 2-7. eskoia **Herria:** Laukiz **PK:** 48111
Nortasun agiria: 56.887.673J **Telefonoa:** 946153262
Noren ordezkari:

ERREKLAMAZINOA JASO DAUENAREN DATUAK

Enpresaren izena: Ibili Auto Konponketak
Helbidea: Lauaxeta, 1-3. eskoia **Herria:** Laukiz **PK:** 48111
IFZ/NA zk.: 56.887.673D **Telefonoa:** 946153662
Jarduera: Auto konponketa

ERREKLAMAZINOAREN ARRAZOIAK ETA HELBURUA

Autoa tailerrera eroan neban frenoetako arazoa konpontzeko. 150 €-ko aurrekontua egin eusten eta nik onartu egin neban. Konpondu ondoren autoa jaso neban aurrez ordainketa eginda.

Astebetera frenoetako arazoak izan zituan autoak eta barriri tailerrera eroan neban. Hartzera joan nintzanean beste 150 € ordaindu behar izan neban. Gauza bera bi aldiz ordaintzen nenbilela esan neutsen, baina hareek esan eusten, ordaintzen ez baneban, autoa ezin nebala atera. Gero, erreklamazino orriak eskatu nituan eta esan eusten ez eukiela holakorik. Tailerrekoen jarrera ikusita ordaindu eta alde egitea erabagi neban.

Hagaitik bada, hauxe eskatzen deusuet, bitartekaritza egiteko bigarren konponketaren fakturaren zenbatekoa itzuli deiden eta erreklamazino orriak ipini daiezan "Ibili auto konponketak" tailerrean.

ERREKLAMAZINOAREN EGUNA

2000ko irailaren 12an

GEHITZEN DITUDAN AGIRIAK (FAKTURAK, EGIAZTAGIRIAK,...)

Lehenengo faktura
 Bigarren faktura

Izp.



1



Bidaia behar ez dan moduan antolatzeagaitik erreklametea

ERREKLAMAZINOGILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Anixe Freire Castro

Helbidea: Txabarri, 6-7. eskoia **Herria:** Zamudio **PK:** 48170

Nortasun agiria: 56.887.673Ñ **Telefonoa:** 944525269

Noren ordezkari:

ERREKLAMAZINO A JASO DAUENAREN DATUAK

Enpresaren izena: Ibili Bidaiak

Helbidea: Elizalde, 7-3. eskoia **Herria:** Zamudio **PK:** 48170

IFZ/NA zk.: 12.867.644 **Telefonoa:** 944528741

Jarduera: Bidaia agentzia

ERREKLAMAZINOAREN ARRAZOTIAK ETA HELBURUA

Ezkon bidaia dala eta, bidaia bat kontratatu genduan: Mexikon zehar zirkuitua eta Cancun-en egonaldia. Zirkuiturako 5 izarreko hotelak aukeratu genduzan eta hala jasoten eban kontratuak. Hirugarren egunean gauean berandu heldu ginan hotelera eta sartuaz batera konturatu ginan ez zala 5 izarrekoa. Berandu zan eta ez egoan aldaketa haren barri emongo euskun inor. Lo egitea erabagi genduan, ezin genduan ordu hareetan ezer egin eta. Ez zan hor amaitu dana, hurrengo egunean zirkuituak jarraitzen eban eta ez ziran bila etorri, antza danez, ez ekien gu beste hotel horretan gengozanik. Egun osoa galdu genduan eta guk ordainduta geunkan egun horretako urteerea. Gure kexea adierazo geuntsan hango gidari, baina hona etorritakoan egiteko esan euskun harek. Bidaia kontratatu genduan agentziara jo eta hareen ardurea ez dala esan deuskue. Han egin behar ei genduala kexea. Orain ez ei dago urtenbiderik. Guk, ordaindutako 5 izarreko hotelaren eta egin ez genduan urteeraren kostua errekerperau gura dogu, eta horretarako jotzen dot zuengana.

ERREKLAMAZINOAREN EGUNA

2000ko irailaren 10ean

GEHITZEN DITUDAN AGIRIAK

Kontratua. Ordainagiria. Guk aukeratutakoa ez zen hotelaren foilettoa.

Izp.

D

Telefono konpainia bati erreklametea

ERREKLAMAZINOGILEAREN DATUAK**Izen-abizenak:** Amaia Fuentes Fuentes**Helbidea:** Kale Nagusia, 3-7. ezkerria **Herria:** Basauri **PK:** 48970**Nortasun agiria:** 72.117.643F **Telefonoa:** 944405193**Noren ordezkari:****ERREKLAMAZINOA JASO DAUENAREN DATUAK****Enpresaren izena:** Euskaltel**Helbidea:** Zabalandi kalea, 8-5. eskoia **Herria:** Basauri **PK:** 20570**IFZ/NA zk.:** 56.887.673S **Telefonoa:** 944403892**Jarduera:** Aseguru enpresa**ERREKLAMAZINOAREN ARRAZOIAK ETA HELBURUA**

Telefono konpainia bategaz daukat kontratauta 944405193 linea. Azken hile biko fakturea hartu dot, 360 €-koa. Okerren bat dago faktura horretan. Izan be, gure etxeko gastua ez da inoiz 70 € baino gehiago izan. Ikusten dozuenez aldea itzela da. Gainera, egindako deien zerrendea aztertzerakoan, konturatu gara abuztuan egin dirala deiak eta, gainera, 902 zenbakietara. Gu abuztuan ez gara etxean egon, beraz, ezin izan dogu deirik egin. Internetik be ez daukagu etxean.

Erreklamazinoa telefonoz egin dot eta eurek esaten deuste hori dala nire telefono zenbakiaren gastua eta ez daukadala zer eginik. Arazoa konpondu barik dago eta bildur naz hurrengo fakturan zer etorriko ete dan.

Halanda ze, bi gauza eskatzen ditut: azkeneko fakturea zuzendu daijala telefono konpainiak eta deiak nork egin dituan aztertu daijala, holangorik gehiagotan jazo ez daiten.


ERREKLAMAZIOAREN EGUNA

2000ko irailaren 27an





GEHITZEN DITUDAN AGIRIAK

Aurreko bi fakturak. Abuztuko hoteleko fakturea.

Izp.



1




9

UDALAGAZKO HARREMANETAN HERRITARREK ERABILTEN DITUEN IDATZIAK

- A** Erroldako datuak aldatzeko eskatzea
- B** Obra txikiak egiteko lizentzia eskatzea
- C** Dendea zabaltzeko lizentzia eskatzea
- D** Ibilgailuen gaineko zerga zuzentzeko eskatzea
- E** Kultura etxeko aretoa erabilteko eskatzea
- F** Oposizino baten kanpoan itxi edo baztertu izanaren kontrako erreklamazioa
- G** Jabetza publikoko ondasunei eragindako kalteak salatzea
- H** Mahaiak eta aulkiak bide publikoan ipinteko baimena eskatzea
- I** Errotuluak, erakusleihoak eta toldoak ipinteko lizentzia eskatzea
- J** Hirigintza informazioa eskatzea

A

Erroldako datuak aldatzeko eskatzea



1

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Joxemari Gartzia Lopez**Helbidea:** Aretzalde kalea, 7-1. eskuina**Nortasun agiria:** 56.887.673C**Noren ordezkari:**

AZALPENA

Erroldan nire helbidea Garaioltza kalea, 1. B dala adierazoten da, baina daborduko bost hilabete pasau dira Aretzalde kalea 7-1. eskuinera aldatu nintzanetik.

ESKAERIA

Honenbestez, eskatzen deusut nire lehenagoko helbidearen datuak kentzeko erroldatik eta barriak ipinteko.

Lezaman, 2002ko martiaren 15ean

Izp.:

B

Obra txikiak egiteko lizentzia eskatzea

1



ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK:

Izen-abizenak: Jesus Telleria Madariaga

Helbidea: Nafarroa beheara, 2-2. esk. Herria: Erandio

NA zk.: 74568467X

Tel.: 945447700

AZALTZEN DOT:

Hainbat obra egin gura dot bizi nazan etxebizitzan: komuna konpondu eta barria egin, sukaldea barriztu eta garajea egokitu.

Horregaitik guztiagaitik,

ESKATZEN DOT:

Behar diran tramiteak egin eta gero, obra lizentzia emoteko, lehenbailehen hasi gura doguz obrak eta.

Eskatu dodana onartuko dozuelakoan, agur.

Erandion, 2002ko garagarriaren 8an

Izp.: 

C

Denda zabaltzeko lizentzia eskatzea



1

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Maider Gonzalez Otxoa
Helbidea: Mestikabaso, 1- 2. esk.
Herria: Gernika-Lumo
NA zk.: 12568467S

ADIERAZOTEN DOT


Daborduko amaitu ditudala Muxikako Kurtzero auzoan dagoan merkataritza etxabea egokitzeko obrak, Miren Azkoaga arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera. Honegaz batera fatxadaren argazkia aurkezten dot, bai eta obra amaierako ziurtagiria eta likidazinoa be, ikus-onetsi barik, baina 15 eguneko epean Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak ikus-onetsitako beste batzukaz ordezkaturko ditut.

Halanda ze,

ESKATZEN DOT

Aurkeztu dodan dokumentazinoa jasota geratzeko eta, hala bajagoko, zabaltzeko lizentzia emoteko.

Gernika-Lumon, 2002ko apirilaren 2an

Izp.: 

D

Ibilgailuen gaineko zerga zuzentzeko eskatzea

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK:**Izen-abizenak:** Ibai Murillo Madariaga**Helbidea:** Lapurdi kalea, 8-2.esk.**Herria:** Galdakao**NA zk.:** 14568467A **Tel.:** 944560011**AZALTZEN DOT:**

2002ko zerga bilketan ibilgailuen gaineko zergaren gaineko kanpaina datorrela eta, esan behar deusuet ez dozuela nire automobilaren gaineko zerga behar dan moduan kobretan, 10-12 zaldi fiskaleko ibilgailuetan barik 14tik gorakoan artean sartzen dozue eta. Nire automobila Seat 600 markakoa da.

Horregaitik guztiagaitik,

ESKATZEN DOT:


Orain bi urteko eta igazko zergaren kopurua berraztertu eta toketan jatana itzultzeko niri, eta bide batez aurtengoa behar dan moduan apliketako.

Eskatu dodana onartuko dozuelakoan, agur.

Galdakaon, 2002ko garagarriaren 8an

Izp.: 

1





Kultura etxeko aretoa erabilteko eskatzea

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Sara Otaño Maguregi

Helbidea: San Pedro kalea, 7-2. ezkerre

NA zk.: 15237751B

Fax: 946737159

Noren ordezkari:

Herria: Amorebieta-Etxano

Telefonoa: 946737159

E-posta: sarao@euskalnet.net

Idatzi honen bidez baimena eskatzen dot Kultura Etxean erakusketa bat antolatzeko. Nire asmoa izango litzateke irailaren 15etik 30era bitartean erakustea nire margoak. Guztira 30 koadro dira, 12 30x40 cm-koak eta gainerakoak 70x100 cm-koak.

Amorebieta-Etxanon, 2002ko martiaren 4an

Izp.:

1



2

Idatzi honen bidez baimena eskatzen dot Kultura Etxeko aretoan berbaldi bat antolatzeko, Beti Gazte kultura alkartearen izenean. Hitzaldia abenduaren 10ean izango da, arratsaldeko 7retan. Hizlaria Pantxoa Egiagarai da eta "Gazteak globalizazioaren sasoian" gaia jorratuko dau.



Oposizino baten kanpoan itxi edo baztertu izanaren kontrako erreklamazioa

1

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK:

Izen-abizenak: Amaia Villaverde Garitano

Helbidea: Karabiazpi auzoa, 8-2.esk.

Herria: Berango

NA zk.: 24568467M

Noren ordezkari:

AZALTZEN DOT:

Udaltzainak hartzeko, Elorrioko Udalak deitu dauen oposizino-lehiaketan onartu eta baztertu diran izangaien zerrendea argitaratu dabe Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2002ko bagilaren 14an, eta kanpoan gelditu naz, nire eritxian ezelango justifikazino barik, zer horretan eskatzen diran baldintza guztiak beteten ditut eta.


ESKATZEN DOT:

Zuzentzeko onartu eta baztertutakoen zerrenda hori, eta sartu nagiera onartutako behin betiko zerrendan.

Eskatu dodana onartuko dozuelakoan, agur.

Berangon, 2002ko garagarriaren 18an

Izp.:



G

Jabetza publikoko ondasunei eragindako kalteak salatzea

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Jone Zumalde Elortza

Helbidea: Iparragirre kalea, 1-3.esk. **Herria:** Ondarroa

NA zk.: 11568467A

Atzo arratsaldean gure auzoko lorategiak hondatu zituan motor txiki batek. Ez da lehenengo aldia hori jazoten dana. Izan be, hainbat gazte ibiltzen da motorrean gure auzoan, orain espaloi gainean orain lorategietan. Udalak, ostera, ez dau oraindino ezelango neurririk hartu. Tamalgarria litzateke egunen baten motor horreek umeren bat harrapauko balebe. Hori guztiori kontuan izanda, gure auzora udaltzainak bialtzeko eskatzen deutsut.

Ondarroan, 2002ko garagarriaren 8an

Izp.: 



1

2

3

Idatzi honen bidez adierazo gura deutsuet lotsagarria dala Lamera parkeko egoerea, lohi-lohi dago eta. Izan be, zakarrontzirik be ez dago. Parke osoan –eta parkea handia da– lau bat zakarrontzi baino ez dagoanez, umeakaz olgetan joaten garan gurasook ez daukagu zaborra nora bota.

Bermeon, 2002ko zezeilaren 7an

Izp.:




Idatzi honen bidez salatu gura dot Errenteria auzoko erreka ondoko pasealekuaren egoerea. Izan be, pasealeku horretako esku barandea apurtuta dago hainbat lekutan eta arriskua dago jentea erreka jausteko. Kontuan izan pasealeku horretan edadeko jente asko ibiltzen dala. Umeak be ibiltzen dira. Halanda ze, albait eta arinen konpontzea komenidu dala pentsetan dot, ezer txarrrik jazo aurretik.

Gernika-Lumon, 2002ko irailaren 19an

Izp.:





9

UDALAGAZKO HARREMANETAN
HERRITARREK ERABILTEN
DITUEN IDATZIAK

H

Mahaiak eta aulkiak bide publikoan ipinteko baimena eskatzea

1

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Naiara Boizas Basauri

Helbidea: Espoloia kalea, 10-2.esk.

Herria: Sondika

NA zk.: 74000111X

OKUPAZINOARI BURUZKO DATUAK


Tabernearen izena: Legazpiarra

Okupauko diren metroak: 50


Non egin gura dan okupazinoa: Iturrigane, 7an

Noiztik noiz arte: bagilaren 1etik irailaren 30era arte

Sondikan, 2002ko maiatzaren 10ean



Izp.:





Errotuluak, erakusleihoak eta toldoak ipinteko lizentzia eskatzea



1

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Ane Diaz Aizpuru

Helbidea: Arteaga, 1

Herria: Derio

NA zk.: 11684067J

AZALPENA

Beheko auzoko 1ean, IBILI zapata dendan, toldo bat ipini gura dot erakusleihoaren gainean. Honeek dira toldoaren ezaugarriak:

Neurriak: 3 x 2 m

Materiala: lona

Kolorea: urdina

Honegaz batera bialtzen dot toldoa ipiniko dodan lekuaren planoak.

ESKAEREA

Goian esandako toldoa ipinteko baimena.

Derion, 2002ko maiatzaren 10ean

Izp.:

J

Hirigintza informazioa eskatzea

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Beñat Lasa Aizpuru**Helbidea:** Etxebarri baserria, Berrezoaga auzoa**Herria:** Larrabetzu**NA zk.:** 11554067T

ADIERAZTEN DOT

Honegaz batera joatzu Andra Mari kalea, 8 eta 10eko etxeetan dagozan lokal bien kokapen planoak.

Halanda ze,

ESKATZEN DOT





Lokal horreetan apartamentuak egiteko aukerearen gaineko hirigintza informazioa.

Larrabetzun, 2002ko maiatzaren 10ean

Izp.: 

1





Basauri, Berango, Galdakao, Gernika-Lumo eta Ondarroako Udalentzat eta Txorierriko Udalen Mankomunidadearentzat prestatutako edizinoa.

© Edizio honena: Elkarlanean S.L. Donostia

© Egilearena: *Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñatiko Udalak.*

Koordinatzailea: Elkar Argitaletxea.
Portuetxe kalea, 88 bis. 20018 Donostia.
Tel. 943 310 267





Diseinua eta maketazioa: *AZK Táldea.*

Fotomekanika: *Estudios Durero.*

I.S.B.N.: *84-9783-310-4*

Lege gordailua: SS-1121/2005

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak S.L., Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain (Gipuzkoa)





BASAURI



BERANGO



GALDAKAO



GERNIKA-LUMO



ONDARROA



Txorierri



Deno



Larribeitzu



Lezama



Lolu



Sondra



Zamuio

ALKARBIDE